

## PSOE-EAJ: Patxi Lopezen gaisetik?

**HAUTESKUNDE USAINA** bapo ari da barreiatzen euskal politikan. Espero bezala, ezker abertzalearen proposamenak ez du lortu Aralar eta EAren baiezkorik, baina ezker abertzaleari, besteak beste, kanpaina prestatzeko aukera eskaini dio horrek, nahiz eta oraindik ez dakien legez egon ahal izango den ala ez.

Proposamena berandu dator gauza dadin, baina gainera, NaBai-ko alderdiek borondaterik onena balute ere, ez dago haien esku bakarrik ezker abertzalea hauteskundeetara aurkeztearena. Alegia, ezin dela iragan politiko hurbila une batetik bestera aldatu, denbora behar dela. Horixe dio ezker abertzaleak aldaketa erritmo azkarragoak eskatzen zaizkionean eta berak ere horixe ulertu eta errespetatu beharko du besteekiko ere.

Baina, sakonean, Nafarroako etorkizun politikoan amua bota du ezker abertzaleak, zein arrain jaso nahiko lukeen argi adieraziz. Eta argi dago Nafarroako espazio politikoan etorkizun hurbilean ez dagoela lekurik euren burua ezkerrekotzat jotzen duten hiru indar abertzaleentzat, Aralar, EA eta ezker abertzalea. Argi dagoen moduan, abertzaleetasunarentzat ere ez litzatekeela ona halako indar sakabanaketa.



Finean, EAJ eta ezker abertzalea dira argien mintzatu direnak, argi utziz ez dutela elkarrekiko ezer nahi, behintzat hauteskundeetara begira. Baina zer nahi dute hauek?

**EZKER ABERTZALEA** argia izaten ari da bere planteamendu estrategikotan: borroka armatua alboratu eta ezker soberanista eratu. Abertzaleen artean jeltzaleek duten nagusitasu-

**Irudi luke Zapatero  
Urkullurentzat kanpaina  
egiten ari dela. Edo,  
urrunago joanez, EAJ eta  
PSOE etorkizuneko botere  
banaketa lantzen  
ari direla**

na lehiatu eta, erabaki eskubidea helburu, estatuarekiko konfrontazio demokratikoa abiarazi. Eta irudikatzeke samurra ez den hau guzti hau gauzatuko balitz, ba ote Maltzagaraino joaterik *Batu Gaitzeneko* jeltzaleekin?

Jose Luis Zubizarreta analistari –eta Ardanzaren aholkulari ohia– kasu eginez gero nekez, bere ustez EAJ eta PSOEren egungo amodioak etorkizunerako sustrai sendoak botako baititu. Gero eta gehiago dira berak moduan pentsatzen dutenak. PP-PSOEren itunaren gaisetik izan behar. Eta akaso Patxi Lopezen gaisetik ere bai.

José Luis Rodríguez Zapaterorentzat ur bedeinkatua izan da jeltzaleekiko akordioa. Baina datozen hilabeteetan irudikatuko den Madril-Gasteiz eskumen desfileak jeltzaleak indartu eta Lopezen gobernua nabarmen higituko dute. Eta, kanpotik ikusitan, irudi luke Zapatero Urkullurentzat kanpaina egiten ari dela. Edo urrunago joanez, jeltzale eta sozialistak etorkizuneko botere banaketa lantzen ari direla: bat, bien artean gobernatzeko; bi, zerrenda bozkatuena errespetatuz, dagokion lekuan bakoitzak bestearen gehiengoa onartzeko. Horra ETAREN ondorengo eszenatokiako koadro posible bat.

### KONDENATU BATEN AZKEN EGUNAK

Victor Hugo  
Itzulpena: Juan Mari Agirreurreta



### ZAZPI ORDUAK

Miren Agur Meabe  
Magiaren kristalarekin  
bidaiatzeko liburua.

